

## PASAI A / Irakurzaletasuna bultzatuz

### **Garcia Marquez, Machado, Atxaga eta Landaren idazlanak irakurri ahal izango dira autobus geltokietan**

Nagore Vega

Errenteria-Oreretako autobus geltokietan itxaron behar dutenei denbora atsegingarriago egingo diete Gabriel Garcia Marquez, Antonio Machado, Bernardo Atxaga eta Mariasun Landaren euskarazko eta gaztelaniazko idazlanek. Udalak martxan jarri berri duen Irakurtzea gustatzen zaizula? kanpainak irakurzaletasuna bultzatzea du helburu, «baita estetika urbanoa hobetu eta garraio publikoaren zain daudenen itxaron denbora laburrago egitea ere».

Hasiera batean eleberrien testuak izango badira ere, denetariko generoak eskaintzea espero dute, hala nola: poesia, antzerkia, entsegua... Autoreak ere aldatzen joango dira, unibertsalki ezagunak diren autoreak idazle lokalekin konbinatuko dituzte. Ezagunak Herman Hesse, Jorge Luis Borges, Garcia Lorca, Esquilo edota Gabriel Aresti izango dira. Idazle lokalak Jautarkol edota Maddalen sarietan irabazle suertatutakoak izango dira.

### **Beste kanpainak**

Udalak adierazi duenez, «kanpaina honek martxan dauden beste batzuk osatzea du xede». Beste kanpaina horiek Euskaraz blai eta Irakurri oparitut dira. Euskaraz blai kanpainaren baitan liburutegi ibiltari bat udal igerilekuetan ibiliko da udako hilabeteetan. Irakurri oparitut kanpainan, berriz, liburuak gabonetako opari bezala erosiz gero diruz laguntzen dituzte.